

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, EFA 156/04 SAREBIDE PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO ADMINISTRATIBORAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen helburua da **EUSKAL EDITOREA SLU** erakunde taldeburuari eta gainerako erakunde bazkideei “**SAREBIDE**” **proiektua** (aurrerantzean, “proiektua”) garatzen laguntzeko eta haren koordinazio eta kudeaketa administratiboa egiteko laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatzeke baldintzak definitzea. Proiektuak EFA 156/04 identifikazio-zenbakia du eta INTERREG POCTEFA 2021-2027 Lurralde Lankidetzako Programaren bidez finantzatu zen, **Mendebaldeko Eremu Funtzionala** deialdian (AFOMEF). Proiektuak Eskualde Garapeneko Europako Funttsaren (EGEF) baterako finantzaketa du.

SAREBIDEk AFOMEF estrategiaren 3. erronkari erantzuten dio: “Hizkuntza-oztopoa gainditzea”. Haren helburu orokorra da “euskarazko hedabideen eraldaketa digitala sustatzea, eta baliabide eta soluzio teknologiko komunak txertatzea, adimen artifiziala barne, sareko edukietara sartzeko eta edukiak zabaltzeko kanalak eta formatuak areagotzeko, hala publiko berriengana iristeko”. Proiektuaren helburua da “euskarazko hedabideen mugaz gaindiko lankidetzak teknologikoko sare” bat ezartzea.

Proiektuaren lan-plangintza 5 ekintzatan eta honako jarduera hauetan dago antolatuta:

- **1. EKINTZA: Proiektua kudeatzea**

1.1 jarduera. Proiektuaren kudeaketa administratiboa, koordinazioa eta barne-komunikazioa, jarraipena, proiektuaren ebaluazioa eta gorabeheren kudeaketa.

1.2 jarduera. Finantza-kudeaketa: gastuen aitorpenak, dirua itzultzeko eskaerak, kontrolak/auditoretza.

1.3 jarduera. Ekintza-plana kudeatzea: aurrerapen-txostenak, entregatzekoak eta adierazleak.

- **2. EKINTZA: Komunikazioa**

2.1 jarduera. Programaren komunikazio-betebeharrak betetzea.

2.2. jarduera. Proiektuaren berezko beste komunikazio-jarduera batzuk.

- **3. EKINTZA: “Euskarazko hedabideen mugaz gaindiko lankidetzak teknologikoko sareak” sortzea, azpiegitura partekatu batekin.**

3.1. jarduera. Azpiegitura teknologikoa aztertzea eta eguneratzea proiektuko bazkideen berezko premien arabera.

3.2. jarduera. Sarearen azpiegitura teknologiko komuna ezartzea, proiektuaren mugaz gaindiko eduki digitala partekatzeko eta zabaltzeko.

3.3. jarduera. Sareak mugaz gaindiko euskarazko lehen ikus-entzunezko ekoizpen komuna sortzea eta bere sorrera-manifestua sinatzea.

- 4. EKINTZA: Euskaraz eta publiko guztientzat eskuragarri dauden eduki digitalak hedatzeko sistema berriak garatzea.

4.1. jarduera. Zabaltzeko sistemak aztertzea eta eguneratzea proiektuko bazkideen beharren arabera.

4.2. jarduera. Ikus-entzunezko plataforma digital konektatua, irekia eta streaming bidez edukia eskaintzeko gai dena garatzea.

4.3. jarduera. Streaming bidezko askotariko musika-plataforma bat garatzea bere aldizkari digitalarekin.

- 5. EKINTZA: Adimen artifizialeko eta hizkuntza naturala prozesatzeko (NLP) teknologiak ikertzea eta aplikatzea proiektuak garatutako plataformetan, erabiltzaileen esperientzia hobetzeko.

5.1. jarduera. Plataforma digitalei aplikatutako hizkuntza naturala prozesatzeko teknologia berriei (NLP) buruzko ikerketa.

5.2. jarduera. Hizkuntza naturala prozesatzeko teknologia berriak (NLP) proiektuan garatutako plataforma digitaletan integratzea.

Proiektua 8 erakunde onuraduneko partzuergo batek osatzen du (aurrerantzean, "partzuergoa"), eta honako taula honetan zehazten da:

Zenbakia	ERAKUNDEAREN IZENA	ERAKUNDEAREN AKRONIMOA	Herrialdea / II NUTT
1 (taldeburua)	EUSKAL EDITOREA SLU	BERRIA	Espainia / ES21
2	EUSKAL IRRATIAK	EUSKAL IRRATIAK	Frantzia/FRI1
3	ALDUDARRAK BIDEO	KANALDUDE	Frantzia/FRI1
4	BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK SA	HAMAICA Bilbo	Espainia / ES21
5	NAFAR IKUSENTZUNEZKOAK SA	HAMAICA Iruñea	Espainia / ES22
6	DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK SA	HAMAICA Donostia	Frantzia/FRI1
7	ELHUYAR FUNDAZIOA	ELHUYAR	Espainia/ES21
8	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	EUSKALERRIA IRRATIA	Espainia/ES22

Proiektuak, onartutako hautagaitzaren inprimakian, C5.1 – 1. ekintza-Proiektua kudeatzea apartatuan (1.1 jarduera: PROIEKTUAREN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA, KOORDINAZIOA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA, JARRAIPENA, PROIEKTUAREN EBALUAZIOA ETA GORABEHEREN KUDEAKETA), honako hau jasotzen du: *"Taldeburua izango da jardueraren buru, eta bazkide guztiek parte hartuko dute. Kanpoko laguntza teknikoa kontratatuko dute proiektua koordinatzeko eta kudeatzeko (gastu komun partekatua)."*

Bazkideek sinatutako “gastu komunak akordioan” honako hau ezartzen da “gastu komun” gisa, beste batzuen artean:

- AT1 1. ekintzarako laguntza teknikoak - Kudeaketa eta koordinazioa (1. jarduerak: koordinazio- eta kudeaketa-sistema definitzea; 2. jarduerak: partzuergoaren koordinazio eta jarraipen teknikoak. 3. jarduerak: finantza-koordinazioa eta -jarraipena).

Halaber, honako hau ezartzen da:

- Bazkide guztiek 1. erakunde bazkideari, EUSKAL EDITOREA SLuri, eskatzen diote, botere esleitzailerik den aldetik, 1. ekintzarako (Proiektua kudeatzea) laguntza teknikoak kontratatzearen funtzioak bete dezala.

Proiektuak 36 hilabeteko iraupena du, 2025eko maiatzaren 1etik 2028ko apirilaren 30era.

Laguntza teknikoak gauzatzeko epeak kontratua sinatzen denean hasiko da, eta proiektuaren justifikazio tekniko eta finantzarioarekin amaituko da (2028an zehar).

2. JARDUKETEN XEHETASUNAK

a) KOORDINAZIO TEKNIKOA

Esleipendunak laguntza eman beharko die taldeburuari eta proiektuko bazkideei, zeregin hauekin:

- Proiektua kudeatzeko jarduerak planifikatzea.
- Proiektuko jardueren koordinazio orokorrean laguntzea.
- Bazkideen lanaren jarraipen teknikoak egitea. Jarraipen-plana eta aldizkako txosten teknikoak egitea, baita arrisku-plana ere.
- Bazkideen arteko barne-komunikazioa kudeatzea.
- Partzuergoaren bilerak koordinatzea eta dinamizatzea. Deialdiak prestatzea, koordinatzaileari eta onuradunei dokumentazio egokia bidaltzea, bileretara joatea, bilerak dinamizatzea, sinadurak biltzea eta bileren aktak egitea.

b) KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA

Esleipendunak laguntza eman beharko die taldeburuari eta proiektuko bazkideei, zeregin hauekin:

- Bazkideei informazioa ematea POCTEFA programaren funtzionamenduari, haren betekizunei eta tresnen erabilerari buruz (Sustatzailearen gida, SIGEFA plataforma...).
- Bazkideei aholkularitza eta laguntza ematea aplikatu beharreko prozedurak eta araudia betetzeari buruz.

- Laguntza eskaintzea POCTEFA programaren Kudeaketa Agintaritzarekiko eta Idazkaritza Bateratuarekiko harremanetan eta kontsultei eta informazio-eskaerei erantzutea.
- Taldeburuari eta bazkideei laguntzea POCTEFA programaren araudiari buruzko kontsultak izapidetzen bai Kudeaketa Agintaritzarekin, bai Idazkaritza Bateratuarekin.
- Proiektuaren balizko aldaketak eta luzapenak izapidetzea.
- Proiektuaren garapenean zehar onuradunek sortutako dokumentazio guztia biltzea eta artxibatzea.

c) FINANTZA-KUDEAKETA

- Bazkideei laguntzea banakako gauzatze-txostenak eta urteko gastuen ziurtagiriak egiten.
- Taldeburuari laguntzea gauzatze-txostenetan eta gastu kontsolidatuen aitorpenetan, gastuen azken kontsolidazioa eta EGEFen azken ordainketa-eskaria aurkeztu arte.
- Proiektuaren aurrekontua kontrolatzea. Finantza-planaren aldaketak egitea, behar izanez gero.
- FEDER ekarpenaren eta ordainketen jarraipena egitea.
- Taldeburuari eta bazkideei laguntzea balizko gastu-deszertifikazioei eta finantza-zuzenketen proposamenei erantzuten.
- Izan daitezkeen kanpoko auditoretza finantzario eta fisikoetan laguntzea.

Enpresa esleipendunak bere lanarekin jarraituko du, esleipen-aurrekontu berarekin, proiektua erabat justifikatu arte.